



Idiazabalgo
Udala

EZ OHIKO UDALBATZARRA

2024ko apirilaren 25ean

LEKUA: Batzar gela

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

IDAZKARIA: Garazi Arraibi Larrea

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

Lehena.- Aurreko aktak onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen dira 2024ko martxoaren 31ko ohiko bileraren akta eta 2024ko apirilaren 16ko ez ohiko akta.

Bigarrena.- Dekretuen berri ematea

Idazkariak Dekretuak zeintzuk izan diren azaldu ondoren, ez dago galderarik.

3.- Faktura zerrenden berri ematea

Izalberrik Endararen fakturari buruz galdetzen du eta Alkateak erantzuten dio bidegorriko pasaden urteko proiektuarena dela, aurten sartu dutela faktura. Bestalde, argiterian gehiago gastatu dela komentatzen da kiroldegian, herri sarreran eta Gardin argiak aldatu direlako.

4.- RPTaren hasierako onarpena eta plantilla organikoaren aldaketa onartzea, hala badagokio.

Alkateak dio aldaketa hau Arkitektoaren plaza sortzeko dela. Geroago, balorazio prozesuarekin, aldaketa gehiago egongo direla.

Ahobatez onartzen da plantilla organikoaren aldaketa eta lanpostuen zerrenda.

2024. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ALDATZEA ETA LANPOSTU ZERRENDAREN HASIERAKO ONARPENERAKO PROPOSAMENA

AURREKARIAK

Administrazio Publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa instrumentu bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxienerako betebeharrak batzuen baitan. Aipaturiko instrumentu hori Lanpostuen Zerrenda da eta bertan, Idiazabalgo Udalak duen lanpostuen zerrenda eta lanpostu bakoitzak duen eduki eta ezaugarriak azaltzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutua arautzen duenak, honako hau ezartzen du 74. artikuluan: *“Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilia egituratuko dute beren antolamendua”*. Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua. Lanpostuen zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

1. Lanpostuaren izena.
2. Saillakapen profesionalean zein Taldetako den.
3. Lanpostuaren eskala.
4. Lanpostua betetzeko modua.
5. Ordainsari osagarriak

Lehen aipaturiko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. Artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bigarren.- Bere aldetik, 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarenak, 46. artikuluan jasotzen du lanpostu-zerrenden edukia:

- 1.- Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:
 - a) Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.
 - b) Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.
 - c) Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.
 - d) Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.
 - e) Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.
 - f) Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.
 - g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.
 - h) Dedikazio-arabidea.
 - i) Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.
- 2.- Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.
- 3.- Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeke prozesuen ondorioz, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren.
- 4.- Behin-behineko langileen lanpostu-zerrendek hauek jasoko dituzte, gutxienez: artikuluko honen 1. apartatuko a), b), g) eta h) letretan aipatzen den informazioa, eta ordainsarien guztizko zenbatekoa.

Hirugarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, lege honen 90.1 artikuluko xedatutakoaren arabera, toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira. Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legearen 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikuluko, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikuluko c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariarekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren onarpen hau, ordezkari sindikalekin negoziatu behar da.

Dokumentu hau sindikatuei helarazten zaien momentuan, argi utzi nahi da **asmoa dela balorazio prozesuaren harira berriro elkartzea eta Lanpostuen Zerrendan bestelako aldaketak egitea. Oraingoan, argitaratuta dagoen azken zerrendari 2023.urtean eman diren soldata igoerak aplikatu zaizkio eta arkitekto plaza sartu; izan ere, hori nahi den eran hornitzeko beharrezkoa da postua zerrendan azaltzea eta hori da orain zerrenda hau (plantilla organikoarekin batera) Osoko Bilkurara eramateko arrazoia.**

ONARTZEKO PROZEDURA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikuluko arabera, Udalbatzak du eskuduntza gai hau onartzeko.

Aurreko guztia aintzat harturik, hau

PROPOSATZEN DA

Lehena.- Onartzea plantilla organikoa aldatu eta lanpostuen zerrenda onartzea, hau horrela utziz:

2024. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA / PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL 2024

2024 PLANTILA ORGANIKOA

PLANTILLA ORGANICA 2024

Lanpostuaren izena	Lanp. Kop.	Taldea	Egoera	Denominación de la plaza	Nº plazas	Grupo	Situación
NAZIONALEKO GAIKUNTZAKO ESKALA	1	A1	H	ESCALA DE HABILITACIÓN NACIONAL	1	A1	V
Idazkaritza-kontuhartzaileko				Subescala de Secretaría			

azpieskala
Idazkari-kontuhartzailea

Secretario/a-Interventor/a

ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL

ADMINISTRAZIO OROKORREKO
ESKALA

Administraria azpieskala

Admin. Orokorreko Administraria 2 C1 J

Subescala Administrativa

Administraivo Adm. General 2 C1 P

Admin. Orokorreko Administraria 1 C1 H(1)

Administ. Admon. General 1 C1 V(1)

Administrazio Orokorreko
Administraria 1 C1 H

Administ. Admn. General 1 C1 V

ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL

Zerbitzu Berezieta azpieskala

Subescala de Servicios Especiales

Klasea. Ofizioetako pertsonala
Zeregin anitzetako langilea 1 C2 J

Clase: personal de Oficios 1 C2 P
Trabaj. Cometidos múltiples

Klasea: Udaltzain agentea
Udaltzaingoko zerbitzu agentea 1 C1 J

Clase. Agente del servicio de Policía 1 C1 P
Local

Azpieskala: Teknikoa 1 A2 H(1)

Subescala: Técnica 1 A2 V(1=)

Kultur teknikari-
dinamizatzailea

Técnico/a dinamizador/a de cultura

Arkitektoa 1 A1 H

Arquitecto/a 1 A2 V

LAN KONTRATUDUNAK LANPOSTUAREN IZENA	Lanp. Kop.	Taldea Asimil	Egoe ra	Lanaldia	PERSONAL LABORAL DENOMINACION	Nº Pues tos	Grupo Asimil.	Situac	Jornada
Garbitzaileak	6	E	H	%100	Traba. limpi	6	E	V	%100
Ofizial elektrizista	1	C1	J	%100	Oficial electric	1	C1	P	%100
Gizarte langilea	1	A2	H	%100	Trabaj. social	1	A2	V	%85
Administrari Liburutegi laguntzailea	1	C2	H	%100	Auxiliar biblioteca- administrativo/a	1	C2	V	%100

J: Jabetzan
H: Hutsik
(1): Eszedentzian

P: En propiedad
V: Vacante
(1): En excedencia

2024KO LANPOSTUEN ZERRENDA / RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL 2024

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN					ORDAINKETA / RETRIBUCIÓN										EGOERA / SITUACIÓN				
LANPOSTUA REN IZENA	LH	LM	DM	LANSAIO A	H	ST	MO	AZ	BB	HE	DERRIG. DATA	LP	BO	DB	OP	EGOER A			
DENOMINACI ÓN DEL PUESTO	RL	TP	RD	JORNADA	S	GC	ES	SU	CP	PL	FECHA PREC.	N. CD	C. ESP.	DE	CP	SITUAC			
IDAZKARITZA - KONTUHART ZAIETZA / SECRETARÍA INTERVENC	F	S	1	1	% 100	C O	A1	N H	1	1	-	4	1992-02-27	26	25.197,67	% 9,61	-	E	

ÓN																			
ADMINISTRARI OROKORREKO ADMINSTRARIA/ADMINSTRATIVO/A ADMINISTRACIÓN GENERAL	F	N	1	1	%100	CO	C1	AG		3	3	-	3	1992-02-27	17	22.346,48	-	-	O
ADMINISTRARI OROKORREKO ADMINSTRARIA/ADMINSTRATIVO/A ADMINISTRACIÓN GENERAL	F	N	1	1	%100	CO	C1	AG		3	3	-	3	1993-06-30	17	22.346,48	-	-	O
ADMINISTRARI OROKORREKO ADMINSTRARIA/ADMINSTRATIVO/A ADMINISTRACIÓN GENERAL	F	N	1	1	%100	CO	C1	AG		3	3	-	3	2001-08-01	17	22.346,48	-	-	OV
ADMINISTRARI OROKORREKO ADMINSTRARIA/ADMINSTRATIVO/A ADMINISTRACIÓN GENERAL	F	N	1	1	%100	CO	C1	AG		3	3	-	3	2022-05-26	17	22.346,48	-	-	E
ZEREGIN ANITZETAKO LANGILEA/TRABAJ.COMETIDOS MULTIPLES	F	N	1	1	%100	CO	C2	AE		4	4		1	1992-12-31	16	20.997,17	-	-	O

UDALTZAIN ZERBITZUKO AGENTE/AGENTE DE SERVICIO DE POLICIA LOCAL	F	N	1	1	%100	CO	C1	AE		4	3		2	1991-02-28	17	19.077,51	%15,02		O
KULTURA TEKNIKARI DINAMIZATZ AILEA / TÉCNICO/A DINAMIZADRO/A DE CULTURA	F	N	1	1	% 100	CO	A2	AE		2	2		3	2001-12-05	17	20.124,14		-	OV
ARKITEKTOA / ARQUITECTO	F	N	1	1	% 80	CO	A1	AE		2	1	-	4		26	20.158,13	-	-	V
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	2	1994-12-31	12	16.962,86			E
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	1	1991-02-28	12	16.962,86			E
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	-		12	16.962,86			E
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	-		12	16.962,86			OV
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	1	2021-02-05	12	16.962,86			OV
GARBITZAILE A/LIMPIADOR/A	L	N	1	1	%100	CO	AP	AE		4	5	-	1	2021-02-25	12	16.962,86			OV
OFIZIAL ELEKTRIZISTA OFICIAL ELECTRICISTA	L	N	1	1	%100	CO	C1	AE	1	4	3	-	2	2020-09-24	17	20.483,35	%5		O
GIZARTE LANGILEA / TRABAJADOR/A SOCIAL	L	N	1	1	% 85	CO	A2	AE		2	2	-	3	1993-06-30	17	17.413,07		-	E

ADMINISTRARI LIBURUTEGI LAGUNTZAIL EA/ AUXILIAR BIBLIOTECAR- ADMINISTRATIBO/A	L	N	1	1	% 100	C O	C2	A E	3	3	-	2	1993-06-30	16	14.389,72	-	-	E
---	---	---	---	---	-------	--------	----	--------	---	---	---	---	------------	----	-----------	---	---	---

IZENBURUEN TAULA / TABLA DE LITERALES

IDENTIFIKAZIOA / IDENTIFICACIÓN

1. LAN HARREMANA / RELACIÓN LABORAL

LH - LAN HARREMANA		RL - RELACIÓN LABORAL	
F	Funtzionarioa	F	Funcionario
L	Laborala	L	Laboral

2. LANPOSTU MOTA / TIPO DE PUESTO

LM - LANPOSTU MOTA		TP - TIPO DE PUESTO	
LS	Bakana	S	Singularizado
NL	Ez bakana	N	No singularizado
EL	Konfiantza edo aholkularitza berezia	E	Confianza o asesoramiento especial

3. DOTAZIOA / DOTACIÓN

DOT - DOTAZIOA		DOT - DOTACIÓN	
Lanpostu bakoitzari dagokion plaza kopurua		Número de plazas que corresponden a cada puesto	

4. DEDIKAZIO MOTA / RÉGIMEN DE DEDICACIÓN

DM - DEDIKAZIO MOTA		RD - RÉGIMEN DE DEDICACIÓN	
1	Lanaldi arrunta	1	Jornada ordinaria
2	Dedikazio berezia	2	Dedicación especial
3	Lanaldi partziala	3	Jornada parcial

5. HAUTAKETA-SISTEMA / SISTEMA DE SELECCIÓN

H - HAUTAKETA-SISTEMA		S - SISTEMA DE SELECCIÓN	
L	Lehiaketa	C	Concurso
OL	Oposizio-lehiaketa	CO	Concurso-oposición

ESKATUTAKO BALDINTZAK / REQUISITOS EXIGIDOS

1. SAILKAPEN TALDEA / GRUPO DE CLASIFICACIÓN

ST - SAILKAPEN TALDEA		GC - GRUPO DE CLASIFICACIÓN	
A1	Enplegatutako Oinarriaren Oinarriko Estatutuaren 76. artikulua	A1	Artículo 76 del Estatuto Básico del Empleado Público
A2			
C1			
C2			

AP		AP	
----	--	----	--

2. ESKALA / ESCALA

ES - ESKALA		ES - ESCALA	
NH	Nazional Habilitazioa	NH	Habilitación Nacional
AG	Administrazio Orokorra	AG	Administración General
AE	Administrazio Berezia	AE	Administración Especial

3. MOTA / CLASE

MO - MOTA		CL - CLASE	
1	Zeregin bereziak	1	Cometidos especiales

4. AZPIESKALA / SUBESCALA

AZ - AZPIESKALA		SU - SUBESCALA	
1	Idazkaritza-Kontuhartzaitza	1	Secretaría-Intervención
2	Teknikaria	2	Técnica
3	Administraria	3	Administrativa
4	Zerbitzu Bereziak	4	Servicios Especiales

5. TITULUA / TÍTULO

TIT - TITULUA		TIT - TÍTULO	
1	Doktore-titulua, lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo baliokidea	1	Título de Doctor, Licenciado, Ingeniero, Arquitecto o equivalente
2	Ingeniari tekniko titulua, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa, 3. mailako lanbide-heziketako titulua edo baliokidea	2	Título de Ingeniero Técnico, Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico, Formación Profesional de 3º grado o equivalente
3	Batxiler-titulua, titulu teknikoa edo baliokidea	3	Título de bachiller, técnico o equivalente
4	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua	4	Título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria
5	Eskola graduatua edo baliokidea	5	Graduado escolar o equivalente
6	Gizarte Lanean Diplomatura edo Gizarte Lanean Gradua	6	Diplomatura en Trabajo Social o Grado en Trabajo Social

6. BALDINTZA BEREZIAK / CONDICIONES PARTICULARES

BB - BALDINTZA BEREZIAK		CP - CONDICIONES PARTICULARES	
1	Berdintasun alorrean ikasketak. Genero indarkeriari buruzko ikasketak.	1	Estudios en materia de igualdad. Estudios sobre violencia de género.
2	Kultura eta turismoko ezagutzak.	2	Conocimientos de cultura y turismo.
3	Lanbide ezberdinetako ezagutzak (igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, lorezaintza, etab.). Aplikatzaile bioziden titulua. Laneko arriskuen prebentzioko ezagutzak.	3	Conocimientos de diferentes profesiones (albañilería, fontanería, electricidad, jardinería, etc.). Título de aplicadores biocidas. Conocimientos de prevención de riesgos laborales.

7. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA / PERFIL LINGÜÍSTICO

HE - HIZKUNTZA ESKAKIZUNA		PL - PERFIL LINGÜÍSTICO	
1	1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoak (apirilak 17ko EHAA)	1	Los definidos en el Decreto 86/1997, de 15 de abril (BOPV del 17 de abril 1997)
2		2	

3		3
4		4

8. DERRIGORTASUN DATA / FECHA PRECEPTIVIDAD

DERRIG. DATA - DERRIGORTASUN DATA	FECHA PRECEP. - FECHA PRECEPTIVIDAD
-----------------------------------	-------------------------------------

ORDAINKETA / RETRIBUCIÓN

1. LANPOSTU MAILAKO OSAGARRIA / NIVEL COMPLEMENTO DE DESTINO

LP M - LANPOSTU MAILAKO OSAGARRIA	N. CD - NIVEL COMPLEMENTO DE DESTINO
Funtzionarioak: 1etik 30erako mailak	Funcionarios: niveles del 1 al 30
Laboralak: maila asimilatua	Laborales: nivel asimilado

2. BERARIAZKO OSAGARRI MAILA / NIVEL COMPLEMENTO ESPECÍFICO

BO – Berariazko osagarria	C. ESP. – Complemento específico
---------------------------	----------------------------------

3. DEDIKAZIO BEREZIA / DEDICACIÓN ESPECIAL

DB – Deditazio berezia	DE – Dedicación especial
------------------------	--------------------------

4. ALDI BATERAKO OSAGAI PERTSONALA / COMPLEMENTO PERSONAL TRANSITORIO

OP – Osagai pertsonala edo enpresa akordioa	CP – Complemento personal o acuerdo empresa
---	---

EGOERA / SITUACIÓN

EGOERA - EGOERA		SITUAC. - SITUACIÓN	
O	Beteta	O	Provisto
V	Hutsik	V	Vacante
OV	Hutsik, baina aldi baterako langilearekin beteta	OV	Vacante ocupada provisionalmente
	Estabilizazio prozesuan	E	Proceso de estabilización

5.- Tentsio Altuko Lineari buruzko gaietan, Alkatea ahalbideratzea helegite edota alegazioak aurkezteko, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da ondorengo proposamena:

Udalerrri honi eragiten dioten 400 kV-ko goi-tentsioko lineen proiektuak, Red Eléctrica de España SA eta Forestalia sustatzaileei dagozkienak, L- 400 kV Itxaso-Castejón/Muruarte izenekoak lehenengo kasuan, eta Kyoko eta Ume (ondoren Tebe) sustatzaileei dagozkienak, izapidetu ondoren, udal honek osoko bilkuran honakoa ERABAKI DU:

1.- Helegitea jartzea alde zuzeneko administrazio-baimenak ematen dituzten ebazpenen aurka, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpenen aurka, eta, hala badagokio, eraikitzekeko administrazio-baimenen aurka eta onura publikoko

deklarazioaren aurka. Horretarako, aipatutako proiektuak administrazioarekiko auzien aurreko errekerimenduak aurkeztu beharko dira. Halaber, jasotako erantzunaren arabera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.

2.- Alkatetza gaitzea errekerimendu eta helegite horiek jartzeko, alkatetzaren dekretu bidez.

6.- Lan poltsen kudeaketa arauri jarritako alegazioa aztertzea.

Idiazabalgo Udalaren lan poltsen kudeaketarako arautegia argitaratu zen GAOn, deialdiak nola egin behar diren jasotzen duena. Horren aurrean Elkartuk (Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzaileak) alegazioa jarri du, elbarritasuna duten pertsonak kontuan hartzeko eskatuta. Horren aurrean, Iñaki Arriaranek dio denboraz begiratu behar dela asuntua, eskatzen dena legeak ezartzen duena baino gehiago dela eta hori nola kudeatu pentsatu behar dela. Bertaratuak ados agertzen dira eta erabakitzen da momentuz ez dela horren inguruan erabakiko eta ez dela, momentuz, araua behin betikoz argitaratuko.

7.- Lan poltsen eraketa onartzea, hala badagokio.

Aurreko hilabeteetan kultura teknikari, liburutegi laguntzaile, komunitate dinamizatzaile eta landa teknikari posturako prozesu desberdinak egin dira eta horietan zerrendak daude. Udalbatzak onartzen du zerrenda horiek erabiltzea postu horretan lanean dauden pertsonak ordezkatu behar badira.

8.- 2023-0003 Kreditu-aldaketa onartzea, hala badagokio.

Ahobatez onartzen da Kreditu Aldaketa

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 481.00.334.02 2024	Beneditarrak	0,00	687,90	687,90
1 213.00.153.40 2024	Konp. Mant. Ibilgailua brigada	5.000,00	7.000,00	12.000,00
1 226.00.165.00 2024	Mat. horn. besteak elektrikoak	15.000,00	2.000,00	17.000,00

1 227.00.165.00 2024	Argiteri publikoaren zerbitzua	1.000,00	15.000,00	16.000,00
1 622.02.933.00 2023	Pilarrenea taberna	0,00	8.000,00	8.000,00
1 226.99.933.00 2024	udal erakinen aparteko gastuak	1.500,00	3.000,00	4.500,00
1 481.00.912.00 2024	talde politikoei ekarpenak	0,00	7.200,00	7.200,00
1 227.99.414.00 2024	ondare naturala	0,00	18.201,05	18.201,05
GUZTIRA		22.500,00	61.088,95	83.588,95

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01.000 2024	Diruzaintza gerakina	61.088,95
FINANTZAKETA GUZTIRA			61.088,95

9.- Gizarte eroldaren araubidea onartzea, hala badagokio.

Adosten da arau izaera eman beharrean, irizpide bezala erabiltzea Ongizateko batzordean landutako testua. Edozein kasutan, sakonago begiratu behar da egoera konkretu batean aplikatzeko.

10.- Ogasuneko Batzordearen izaera publikoa onartzea, hala badagokio.

Udalbatza berriaren eraketaren ondorengo bileran erabaki zen Batzorde guztiak, Ogasun, Pertsonala eta Kontuen Batzorde Berezia salbu, publikoak izatea.

Orain Batzorde hori ere publikoa izatea adosten da.

Ahobatez onartzen da Ogasuna, Pertsonala eta Kontuen Batzorde Berezia irekia izango dela.

11.- 2023ko likidazioari buruz informatzea.

2023ko Likidazioko dekretua eta kontuhartzailearen txostena azaltzen dira.

Dekretuko informazioa jasotzen da jarraian:

DIRUZAINZA GERAKINA

- 1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2023-12-31n: 1.678.597,59
- 2.- Kobratu gabeko saldoak, 2023-12-31n: 550.764,13
 - Aurrekontuko zordunak : 521.443,06
 - Aurrekontuz kanpoko zordunak: 29.321,07
 - Aplikatu gabeko kobrantzak: 0,00
- 3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2023-12-31n: 333.066,85
 - Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: 169.755,70
 - Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 163.311,15
 - Aplikatu gabeko ordainketak: 0,00
- 4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3): 1.896.294,87
- 5.- Saldo kobragaitzak: 199.673,68
- 6.- Gehiegizko finantzaketa lotua: 277.633,59
- 7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6): 1.418.987,60

AURREKONTUKO EMAITZA

- 1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: 358.387,08
- 2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza: -268.339,37
- 3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik: 441.585,29
- 4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: -277.633,59
- 5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4): 253.999,41

KREDITU GERAKINAK

- 1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak: 3.313.288,25
- 2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak: 132.888,90
- 3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2): 3.446.177,15

12.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Eta beste ezer esatekorik ez dagoela, bilera 19:00etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkari-Kontuhartzailea